



3 LIBURUAREN EGUNA

Ekimen bereziak Liburuaren egunean

Herrian Liburuaren Nazioarteko eguna ospatuko dute Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan. EPAko ikasleek ere ekimen berezia antolatuko dute gaur arratsaldeko 16:30tan kultur-etxean. Bestalde, bozeramaileen batzordeak liburuen eta irakurzaletasunaren sustapenerako politika publikoei buruzko erakunde-adierazpena onartu du.

4-5 ARKITEKTURA

Hiri altzariak herritarren eskutik eginak

Arkitekturako 50 ikasleak lau ostiraletan Okendo plazan udalak emandako material zaharra berrerabiliko dute hiri altzariak egiteko Nerea Sanchez alkateordea eta Josemi Martinez EHUKo Arkitektura irakaslearen ekimenez.

6 IGERIKETA

Buruntzaldea IKT dominaz domina Huesca Hiria sarian

Bi urre, zilar bat, 3 brontze eta hainbat marka personal lortu zituzten Pazko asteko proban.



# Kulturaz betetako asteburua

Musika eta antzerkia izan dira protagonista beste asteburu batez herrian, Rise To Fall taldearen kontzertua eta "Hareazko ipuinak" antzerkiaren emanaldiarekin

Hainbat kultur jarduera egi-ten dira astea joan eta astea etorri gure herrian. Oraingo honetan, musika kontzertuak eta antzerki emanaldi bat izan ditugu. Ostiralean "Bluestock" taldeak Jalgi Kafe Antzokian jo zuen, Abend-en berriz, nazioartean oihartzun handia lortu duen Rise To Fall death-metal talde entzutsua izan genuen, Lion Head urnietarrekin batera. Larunbatean, "Hareazko ipuinak" antzerki hunkigarria izan zen ikusgai kultur-etxean.

Xpressionek-ek antolatutako ostiraleko kontzertuak eta Markeliñe taldearen "Hareazko ipuinak" antzerkia izan ditugu asteburuan herrian.

Jalgin, Bluestock

Zarautzetik etorri zen "Bluestock" taldea, eta izenak dioen bezala, blues eta rock and roll doinuak izan ziren nagusi ostiraleko kontzertuan.

Euskarazko abesti propioak ingelesezko bertsio klasikoekin uztartu zituzten emanaldia ikustera joan zen jendearen gozamenarako.

Abend-en, Rise To Fall

Kontzertu paregabea eskaini zuen Rise To Fall talde entzutsuak. Bizkaia aldetik etorritako boskoteak maila oneko death-metal kontzertua eskaini zuen ostiral gauean Abend kafe antzokian eta ikusleek kalitatezko musika kontzertu bat dastatu ahal izan zuten.



Rise To Fall talde entzutsuak kontzertu itzela eskaini zuen, metal gogorra eta melodikoa uneka uztartzuz.

Herriko jende asko bazogeen arren, nabarmentzekoa izan zen kanpotik etorritako musikazaleen kopuru altua, arrakasta handia baitu Rise To Fall-ek.

Apirilaren 9an aurkeztu zuten euren azken diskoa, "Defying the Gods", eta ostiraleko kontzertua kantu berriak jendaurrera eramateko baliatu zuten, berriki Japonian izan baitira bira egiten.

Rise To Fall-en aurretik, Lion Head talde urnietarra izan zen oholta gainean.

Hareazko ipuinak

Minbiziaren gai korapilatsua landu zuten larunbateko antzerkian. Haurra gaixo duen aitak txikitxoari poztasuna eta bizitzarekiko duen filosofia baikorra igorri zizkion.



Txotxongilo eta zuzeneko musikaren bidez, duintasunez jorratu zuten minbiziaren gaia.

**Udako Txokoak 2012**

Plan berriak euskaraz eta herrian

izena emateko epea zabalik!

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behea) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

## Adituak dio



Andoni Otamendi

Bertsolaria

## Gure aipamenak izango dira...

**B**este laurogei urtian. Txirritak arrazoi! Orain kokka laurogei urte gehiagotan gure aipamenak izatean dago. Bertsolaritzak Euskal Herrian duen egoera ona da. Transmisioa ziurtatua dago hurrengo belaunaldirako. Hezkuntza arautuan presentzia handiagotzen ari da eta bertsoskolek lanean dihardute. Plazak bertsolarien jarduna arrakastatsua da. Zabalkunde ongi dago kokatua: irrati, telebista, sarea... Euskal kulturaren barruan indartsu ageri da. Nola ez, Bertsosale Elkartearen lanaren ondorioz.

Gure herrira erreparatuta harro egoteko arrazoiak badira. Duela berrogei urte tabernetan musikarik ez zenean, ohikoak omen ziren bertan bezeroen bertsosaiok. 20 urte dira bertsoskolek sortu zene. Aldameneko herriekin alderatuz gero (Usurbil, Andoain, Urnieta, Hernani...) inbidia emateko moduan egon gara.

Bertsoskolen sorrerak bertsoa herrian txertatu duela iruditzen zait. Bertsolariek herriko kultur beharretarako eskura gaude. Kultur-etxean urtean hiru saio egiten dira, horietako bat esperimenduzkoa. Horretaz gain, herriko txapelketak, desafioak, poteak, Santa eskea... Bertsolariek ere baditugu maila, adin eta helburu ezberdinekoak. Landaberri ikastolan eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, astean behin, bertsolaritzako saioak dituzte 10-11 urteko neska-mutilek.

Gaztetxoan bertsoskolek bat ere ba martxan jartzea lortu da. Eta Lasarte-Oriako helduen bertsoskolek Euskal Herriko esperientzia pilatuena duena izango da. Esaterako azken astean lau lagun elkarrekin ginen. Batzuek edadea... 61 urtekoa izanik! Nahiz eta marka makala ez izan indarberritu ezean izango al dira gure aipamenak "beste laurogei urtian"?

## Bertsolari gazteen ausardia

**A**steazkenean banatu ziren Manuel Lekuonan bertso paper lehiaketako sariak. Aurtengoa hemeretzigarren edizioa izan da eta 200 ikasle inguru aurkeztu zituzten euren lanak honetara. Parte hartze handi hau seinale ona da zalantzarik gabe. Herrian bertsolaritzarekiko zaletasuna bizirik dagoelaren adierazgarri.

Bertan garaile izan ziren lanen maila oso ona izan zela azaltzen zuten bertaratutakoek. Denen lana zoriondu nahi nuke baina, bereziki azpimarratuko nituzke, zuen baimenarekin, DBHko ikasle lanak. Biak bertso benetan hunkigarriak izan ziren, barrenetik idatzitakoak, barne korapilo horiek askatzen laguntzen diguten idatzi horietakoak. Hautatutako gaiak aipatzearekin ulertuko duzue diodana, bigarren saria

eskuratu zuenak "Nik sarri begiratzen diot baina berak inoiz ez!" aukeratu zuen, adin horretan lehen maitasun horrek eragiten dituen kezka, desira eta buru hausteak ekarri zituen oholtzara. Garaileak berriz, "Ez naute ulertzen!" gaiarekin hausnarketa sakona egin zuen bertsoan. Gurasoak eta nerabezeroaren bakardade uneak eta ez ulertuak, Mikel Laboaren kanta mitiko horietako baten doinuaren laguntzarekin, *Mar-txa baten lehen notak*, maixuki lotu zituen. Ane Labaka izan zuen laguntzaile bertsoa kantatzeko eta bertan geundenoi ia malkoa ateratzearaino hunkitu gintuzten. Hau esanda, nire zorionik beroena bi neska ausart hauei izan ere, adin horietan goraino betetako aretoaren aurrean hain benetako bertsoak kantatzeak badu meriturik. Zorionak eta segi horrela!

## Hitz eta pitz

## Bertsozalea al zara?



Ibai Diez

Bertso-saioetara gutxitan joaten naiz, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketara eta Lasarten egiten diren biz-pahiru saioetara. Urtean dozena-erdi saioetara joatea ez dakit bertsozalea izatea den. Herriko bertsolariek ondo aritzen dira, maila daukate, azkenengo Gipuzkoako txapelketan batzuek sailkatu ziren behintzat. Parrandaren batean aritu naiz ni ere baina oso gaizki.



Pedro Otaño

Telebistaz ikusten ditut bertsolariek, Hitzetik Hortzera programan, tarteka. Lasarteko bertsolari asko ez ditut ezagutzen, lehengoak bai, baina oraingoak, erdiak,... laurdenak ere ez. Patxi Etxeberria ezagutzen dut, zaharra, eta ikasten ibili zen gazteren bat, ez dakit orain dabilen. Ez naiz oso bertsozalea, parean tokatzen direnean ikusten ditut bertsolariek.



Idioia Pikabea

Umea eduki nuenetik ez naiz saioetara joaten, lehen sariago, batez ere, asko gustatzen zitzaidan tabernaz taberna ibiltzen zirenean. Kultur-etxean eserita baino nahiago, bizitasun gehiago dauka eta. Zaharrak baino bertsolari gazteak ezagutzen ditut, gutxi, nire generazio-koak Pablo, Andoni,... herri-koak. Telebistaz ere, lehen, aita bizi zenean, gehiago jarraitzen nuen bertsolaritzan.



Alex Ramos

Euskara ikasten ari naizenez, giro hori gustatzen zait, baina oraindik oso zaila egiten zait ulertzeko. Asko kostatzen zait. Euskaltegian ikasi genituen bertsoen neurri ezberdinak, zortziko eta hamarrekoak. Herriko bertsolariek bistaz ezagutzen ditut, Kultur-Etxeko bertso saioetara normalean ez naiz joaten, Jalgin egindako saioen bat ikusi dut. Telebistaz, umekin ikusten ditugu.

## Iruditan



Exbaide bertsolari donostiarrak eta Federico Galardi 1954. urteko San Pedro jaietako saioan. T. Fernandez.

## Okendo plaza, bertsolarien agertoki

Tabernaz taberna edo plazaz plaza ibiltzen dira bertsolariek. Gure herrian Santa eskean edo Azkorteko erromerian entzuteko aukera dugu. Saio bereziak ere egin dira herriko, zein izen handiko bertsolariekin hala nola, Andoni Egaña edo Maialen Lujanbiorekin. Hau ez da azken garaietako gauza, San Pedro jaietan ohitura da bertso saioa. Orain Manuel Lekuona kultur-etxean egiten bada ere, lehen Okendo plazan izaten zen. Hau agertoki izan dute Etxaide, Anjel Mari Peñagarikano, Lazkao-Txiki edo Xabier Euzkitze bezalako bertsolariek.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala  
Euskara BatzordeaEUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILAGFAKO Kultura eta  
Euskara Departamendua

LIBURUAREN EGUNA

# Hitzak protagonista liburuaren egunean

Liburuaren Nazioarteko eguna ospatuko dute herriko ikastetxeek ekimen berezi ezberdinekin

**Herrian Liburuaren Nazioarteko eguna ospatuko dute EPAko ikasleek baita Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako ikasleek ere. Bozeramaileen batzordeak liburuaren eta irakurzaletasunaren sustapenerako politika publikoei buruzko erakunde-adierazpena onartu du.**



lazio irakurketa kultur-etxeko aretoan egin zuten eta jende mordo bildu zen.

**G**aur hainbat izango dira liburuaren eguna herrian ospatzeko ekimenak. EPAko ikasleek ekimen berezia antolatu dute arratsalderako Manuel Lekuona kultur-etxean 16:30ean. Honetan ikasleek euren lanak irakurriko dituzte. Hauek euskaraz, gaztelez, ingelesez eta frantsesez izango dira, eskolan ikasten diren hizkuntza guztiak.

Ohi bezala egun honetan omenalditxoak egingo zaio ikasle bati. Ekitaldian bestelako sorpresak egongo direla ere aurreratu dute antolatzaileek. Aurtengoan ekitaldia Manuel Lekuonaren egingo

denez, nahi duten herritarrek entzule modura joan ahal izango direla adierazi dute eskolatik, ikasleen familia eta lagunekin batera "irakurketa hunkigarriak izaten dira eta benetan politik edozeinek entzuteko modukoak". Festa honi bukaera ona emateko, merienda egingo dute ikasleek.

## Irakurzaletasuna eskolan

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan gaurko hainbat ekimen prestatu dituzte euren klase ordutan. Landaberriren kasuan, liburu trukaketa burutuko dute lehen

aldiz. Ikasleek etxean erabiltzen ez dituzten liburuak eskolara eramango dituzte eta trukean beste ikasleek ekarritakoen artean bat eramango dute etxera. Liburutegiko arduradunak azaldu moduan lehen urtea da hau egingen dela eta harrera ona izatea espero dute.

Sasoeta-Zumabururen ere dinamika bereziak antolatu dituzte, hauek ikasgeletan "On Kixote" liburuaren irakurketa egingo dute, maila ezberdinetarako idatzitako bertsiok hain zuzen gaztelez eta euskarazko itzulpena beste kasu batzuetan. Eskula-

netan Kixote artikulatua egingo dute ikasleek ere eta orrialde erakusleak. Horretaz gain 5. mailako ikasleek egindako liburuaren aurkezpena egingo diete beste ikasleei. Irakasleek beren aldetik, liburutegian Don Quijote liburuaren lehen kapituluak irakurriko dute.

## Erakunde-adierazpena

Liburuaren eta irakurzaletasunaren sustapenerako politika publikoei buruzko erakunde-adierazpena onartu du bozeramaileen batzordeak. "Lasarte Oriako Udalak bere konfiantza adierazi nahi du liburuaren, kulturaren, informazioaren, eta, bereziki, garai hauetan herritarrek bitarteko horietara iristeko benetan demokratizatzen ari diren liburutegi publikoengan eta kultur-zentroengan.

Noizbehinkako oroitza horretatik haratako, urte garai honetan ohikoa den bezala, ganbera honek liburuaren eta irakurzaletasunaren sustapenerako apustua azpimarratu nahi du eta ahalik eta herritar gehienengana zabaldu nahi du, ez soilik irakurketaz goza dezaten, liburu baita kulturarako sarbide

oinarriko eta nagusia.

Arazoi horietatik guztiengatik, Lasarte Oriako udalaren Bozeramaileen Batzordeak, aho batez, honako erakunde adierazpena onartzen du:

1. Lasarte Oriako Udalak, irakurzaletasuna sustatuko duen politika publiko baten aldeko apustua egingo du, baita martxan dauden politikak koordinatzearen eta gehitzearen ondorio izango den liburutegi politika baten alde ere, eta Gipuzkoako lurraldeko administrazio publikoek garatu ahal izango dutena.

2. Lasarte Oriako Udalak herritarrei dei egingo dio irakurketa ohitura har dezaten, eta haurren eta gazteen artean jardura hau susta dezaten. Gipuzkoako eta Euskadiko erakunde ezberdinei ere dei egingo die irakurzaletasuna eta egiteko euskaldunak (euskaraz idazten dutenak) bultzatzeko planak ezar ditzan.

3. Lasarte-Oriako Udalak konprometitzen da 2012. urteko aurrekontuak Udal Liburutegiaren bibliografia-ondarea handitzeko eta bertutuko inbertsiorako partida ekonomikoa izango duela".

## Hondakinen kudeaketarako asmo berriak

Zabaleta auzoan kokatuta dagoen konpostagailuan Bilduko udal taldeak agerraldia egin zuen hondakinen inguruko arazoei aurre egiteko asmoaz.

Pablo Barrio alkatearen hitzetan "benetako arazoak ditugu hondakinekin, urteak daramatzagu edukiontzien birziklatzeko asmotan baina sistema ahitua dago". Gaur eguneko sistemarekin herrian birziklatzen dena ez da %30era iristen %90a birziklagarria denean. "Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina errealitate da %70 zabortegira bideratzen ari garela. Gure kasuan gainera errauskailu baten erakuntza baten eta honen eragin kaltegarria pairatzeko arriskuan gaude".

### Konpostatzeko guneak

Hau ikusita Lasarte-Oriako Bilduko hondakinak murriztu berrerrabili eta birziklatzeko hautua egingen duela azpimarratu nahi izan dute. "Horretarako gure esku ditugun baliabide guztiak erabiliko



Zabaleta auzoko konpostagailuan egin zuten agerraldia Bilduko kideek.

ditugu ahal den modu eragin korrean daukagun arazo konpostatzeko". Honela hainbat asmo azaldu ditu alkateak, besteak beste auzo auzo birziklatzeko aterak diren proposamenak gauzatu nahi dituztela.

"Adibidez, herritarrei larria iruditzen zaie txakurren gorotzak eta hau konpostatzeko sistema berri bat aztertzen ari gara". Bestetik, herritarrek auzo ezberdinetan konpostatzeko aukera izan dezaten konpostagailuak jartzen saiatuko direla esan du ere

Barriok. Horretaz gain, murrizketa eta berrerrabilpen hainbat asmo dituztela aurreratu dute. "Momentuz Okendon Arkitektureko ikasleekin hasi behar dugu ekimena udalaren material zaharra berrerrabiliz altzariak egin ditzaten".

Azkenik, herritarrek hondakinen arazo larria hobeto ezagutzea asmatzeko 19:00etan hitzaldia antolatu dute kultur etxean. Honetan Gipuzkoa Zero Zaborreko kideak izango dira honetan hizlari.

## OPORRAK BAKEAN

### Haur saharai batek familia behar du

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunak elkarte harrera familia baten bila dabil. Azken urteetan bezala, "Oporrak Bakean" ekimenari esker Saharako 7 haurrek Lasarte-Orian igaroko dute uda. Elkarrekin haurrak hartuko dituzten sei familia aurkitu ditu, baina haur batek ez du oraindik familiarik. Herrian dauden bi hilabeteetan mediku azterketak eta txertoak jartzen dizkiete, basamortuko egoera latzirik urrun daude eta beste errealitate bat ezagutzen dute. Haurra hartzeko interesa duen familiak Gizarte Zerbitzuetako Villa Mirentxu egoitzara hurbildu, 943 37 61 79 telefono zenbakira deitu edo ssoales@lasarte-oria.org helbidera mezua bidali behar du.

## GAZTERIA

### Maketa lehiaketa martxan da

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria sailak, V. Musika Maketen lehiaketa parte hartzeko epea ireki du. Edozein musika-estilotako taldea nahiz bakarlariek hartu ahal dute parte, beti ere formato komertzial konbentzionalen lanik argitaratu ez badute. Estatu edo nazioarteko taldeak izan daitezke. Aurreko urtean saritutakoek ezingo dute parte hartu. Izena emateko hiru kanta aurkeztu behar dira, horietako bi gutxienez jatorrizkoak izan beharko dira eta mp3 formatuan bidali. Hiru kantekin batera izen-emate fitxa beteaz bidali beharko da eta taldearen argazki digitala. Taldekideen %50a Lasarte-Orian erroldaturik dagoela adierazten bada fitxan Lasarte-Oria sarian parte hartzeko aukera egongo da, baina maketa berak ezin izango ditu sari bat baino gehiago eskuratu. Datu guztiak musika@lasarteoriansarean.eu helbidera bidali behar dira maiatzaren 11a baino lehen, hortik aurrera biltzen direnak ez dira onartuko. Saria 1000 euro izango da lehenengo saridunentzat eta 700 euro Lasarte-Oria saria jasotzen dutenentzat.



Josemi Martinez eta Nerea Sanchez

# Sormena herritarren zerbitzura

Arkiteturako ikasleek hiri altzariak gauzatuko dituzte Okendo plaza berrian kokatzeko Guztiak material berrerabilerekin egin beharko dituzte Eraikuntza hauentzat materiala herriko biltegian urteak erabili gabe edo utzitakoak izango dira

Arkiteturako 50 ikasleek lau ostiralean Okendo plazan udalik emanadako material zaharra berrerabiltzeko dute hiri altzariak egiteko. Nerea Sanchez Hirigintza batzordeko buruaren ekimenez, EHU'n Arkitectura Irakaslea den Josemi Martinez Ricok garatutako elkarlan proiektua da. Biek in ekimen berritzaile honen inguruan solasean aritzeko parada izan dugu. Ostiralean ikasleek lanean hasi ziren herritar askoren ikusminaren aurrean.

### MAIATZ AZTARNENDI

Zaharra edolatu hondatuta dagoelako. Erabileria hau emango zaito teknikariek in kontsultatuta, ari daukagu material hori zabortegira joango zela epe motzaren.

**Berrerabilerena sustatzea da helburuakakoa?**  
N.S.: Bai esan bezala udalek garrantzitsua iruditzen zaigu material hori berrerabileren bat ematea. Zaborraren kudeaketa arduratsu batean berrerabilerenak daukan garrantzia azpimarratu eta baldin nahi genuke. Adibide bat izango da. Material guzti hauak, baina esean pilatzen ditugu, iraste zaharrek ere, beste batzuta bat izan dezake. Ikerketa aukera izango dela herritarrek. Ekimen honen bultzatza izan da hobe hiru, herritarrek ikusita ahal direla gauzak egin erabiltzeko. Arkiteturako ikasleek laguntza izango dugu kasu honetan baina besteakak burutu ditezke ere.

**Nola hartu zenuen proposamena?**  
Josemi Martinez: Nerarean ideia jaso nuen eta nahikoa ondoko enka-jatzen zuten mik ematen dugun ikasgai batekin, hauetako ikasgai da eta proiektuen garapena du ikasleak dira honetan eta hasi beharra dago ikasgai hau erabiltzeko. Ikerketa aukera izango dela udalek garrantzitsua iruditzen zaigu material hori berrerabileren bat ematea. Zaborraren kudeaketa arduratsu batean berrerabilerenak daukan garrantzia azpimarratu eta baldin nahi genuke. Adibide bat izango da. Material guzti hauak, baina esean pilatzen ditugu, iraste zaharrek ere, beste batzuta bat izan dezake. Ikerketa aukera izango dela herritarrek. Ekimen honen bultzatza izan da hobe hiru, herritarrek ikusita ahal direla gauzak egin erabiltzeko. Arkiteturako ikasleek laguntza izango dugu kasu honetan baina besteakak burutu ditezke ere.

**Proiektu zehatzak zentuen buruan?**  
N.S.: Ez, ari neukana zen zerbitzu mugagarririk behar duen sortutako plaza duen erabileria handiagatik eta ez ingo zirela lurrera lotu baina besterik ez. Okendo bako espazio handia eskaintzen dugu egun eta espazio honetan egitura baten beharra ikusten nuen ari.

**Material guztia biltegiok izango da?**  
N.S.: Gehiena bai zerbit erosi beharko dute baina minimoa, azpimarratu nahi nuke udalaren material hau ez dela herrian berrita erabiltzeko.

**Material guztia biltegiok izango da?**  
N.S.: Gehiena bai zerbit erosi beharko dute baina minimoa, azpimarratu nahi nuke udalaren material hau ez dela herrian berrita erabiltzeko.



Josemi Martinez Ricok EHUko irakaslea eta Nerea Sanchez, zingogaztiak izan diren ekimenaren bultzatzaile.

**Nola burutu dituzte proiektuak?**  
J.M.: Euren jasotako lehenengo informazioa, espazioaren, Okendo plazaren, eta materialaren ingurukoak izan ziren. Proiektuen abiapuntua izan da espazioa eta helburua edukitzea, erabileria bat egin da ondoren, beste baliabideak erabiltzeko agertzen dira; zementatze proiektua, eskura, zementatze proiektua, eskura, zementatze proiektua burutzeko, zementatze proiektua burutzeko... Gure kasuan Okendo plazari zerbit eskaini behar genon eta materiala gurean, horrek in hasi ziren pentsatzen.

**Zer ikusiko dugu Okendo?**  
J.M.: Proiektuak asko dira. Hiri goak ziren, arrikutsuak eta gradak adibidez. Komplexuak izan zitezkeen eta azkenean banku eta urmeen jokoa erabiltzeko dira proiektuak. Hauetara bat egin eta asmoa hiri altzariak egitea da. Landare protekzio egitea da alabari bat eta beste bat. Leku baldia eta erabili gabeko bankuetako egur orofiek in arketuetako zutabeen inguruan banku batzuk egiteko dute. I eta C formako bankuak izango dira. Honen helburua babesten txokoko bat sortzea da, espazio domestikatuko duen zerbitzu izango da. Hala ere gero ikusiko da helburua bete eta erabiltzen

**Udalek garrantzitsua iruditzen zaigu zaharra edo baztertuako material hori berrerabileren bat ematea, bizitza berri bat ematea.**

diren edo ez.  
N.S.: Bigarren proiektu honen harira esan, askotan ikusi ditudala, gaztetxoak arkupe azpi hauen, lurrean eserita eta agian erabilgarriak izango dira banku hauek.  
J.M.: Besteakak ere hor ditugu, esterako, tren moduko bat egitea umek, jolasleko, beste itxale batzuk kubo antzekoak planteatu dituzte haurrek eberko moduan erabiltzeko, topografi bat egitea baldosekin etab. Eraikuntza bat egiteko asmoa dago aurkitutako proiektuekin.

**Nolako harreara izango duela uste dute?**  
J.M.: Ikusi behar baita bada gauzak egiteko beste modu bat, jendearn parte hartzearekin lan egingo dugu eta badi auzolanaren kutsua. Ikasleek hitzartaren eta profesionalaren ikuspegia izango dute. Eredugarria da herritarren erakustea gauzak beste modu batera egin ditezkeela.

**N.S.:** Udalekik gauza berrak egiten dituztean beldurra sortzen da, jendearn gustukoak izango den materialak sortzen dizkizu. Hala ere ekimen honen kasuan, oso positiboa dela iruditzen zaigu. Momentu espantzia aberasgarria dela esan daiteke eta kritikak egongo diren arren, beti egon ohi dira, espero herritarren jehinokak ondo harzea ekimen eta akaso dotozen urtean horrelako gertatuko egitea.

**Berrerabilerena krisi garailan beharrezkoa da?**  
J.M.: Azkenean garai honetan bereziki gauzak beste modu batera egin ditezkeela frogatzen da. Orain arte gauza asko oso gaizki egin dira, diruarekin eta horren aurrean gure erantzukizuna dugu eta gauzak beste modu batera egin, ezin da "a golpe de talonario" eraki eta honetaz jabetu behar gara.

Kasu honetan udal ikasle bati proposatu di la. Ez ditut bankuak erosi dituzte bat gastatu ondoren, bi urte...



Ikasleek egur erabili ahal izateko, aurrez ondo garbitu behar izan dute. Honek lortu zuen zaharrek berrabileraren aurrerakoa erakusten duen irudi bat.



Ikasle hauek metalizko piezak zuzalten ari ziren lehen egituretako bat muntatzen hasi ahal izateko.

**Hiria egiteko modu ezberdin bat ari da sortzen. Garai berri batean gaude eta halako elkarlanak eta prozesu parte hartzaileak beste herri batzuetan ere erabiltzen ari dira. Hiria egiteko modu ezberdin bat ari da sortzen eta adibidez Errenerian dugu proiektu handiago bat. Tolosa, Donostia... badiadun de honelako espantzia bultzatzeko asmoa dute beste udal batzuk ere. Ideia da, eraikin bertsuak dituzte herrian zer egin? Bota ala herritarrik inplikatu eta denentzian zerbat egin? Erakitzeko, hiria sortzeko garailan, beste modu batera pentsatzen hasi behar gara.**



# ANIZIAK

## JANTZI-DENDA

**ERRETIRATZEGATIK LIKIDAZIOA!**

**Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386**

## UDALEKUAK.-

Kirol Udalekuak  
uztailan primeran  
gozatzeko

Lasarte-Oriako Kirol Udal Zerbitzuak kirol udalekuak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat.

Honetan kirol eta joko ezberdinak ezagutuko dituzte, hala nola, tenisa, piraguis-moa, eskujokoak, olimpiada eroak... Buruntzaldeko ibilbi-deetatik barrena txangoa eta hondartzara irteera ere egingo dituzte.

Lasarte-Oriko Udal kirol instalazioetan egingo dira ekintza gehienak goizeko 9:30tik 13:00etara.

Udalekuak bi hamabostaldietan egongo da banatua, bata uztailaren 3tik 13ra eta bestea uztailaren 16tik 27ra.

Eta prezioari dagokionez, 125 eurotako izango da kiroldegiko bazkieentzat, hamabostaldia bakoitzeko. Kirol zerbitzuak jakin arazten du, hamaiketako, bidaia eta materiala prezioan sartuta daudela.

Taldeak gehienez 20 partide izango ditu eta plazak mugatuak direnez hurrenkera errespetatuko da.

Maiatzaren 2tik aurrera izena eman ahaliko da. Inskribatzeko edo informazio gehiago jasotzeko udal kiroldegiko bulegora zuzendu behar dira interesatuak, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30ra eta 17:00etatik 19:00etara.

## ATLETISMOA.-

## Landaberriko atletak Valentziara

Landaberri ikastolako atletak gazteak "Atletismoarekin gozaten" ekimenaren parte hartu eta Espainiako eskolarteko finalerako sailkatu ziren.

Amaia Andresek eta Oscar Goikoetxeak zuzentzen duten taldea hurrengo asteburuan, apirilaren 28 eta 29an izango da Valentzian lehian.

Landaberriko taldea Ane Galardi, Eneritz Busto, Idoia Olasagasti, Maria Eugi eta Oihana Igarritz osatzen dute.

Amaia Andres entrenatzaileak aipatu digunez, hirugarren urtea da Landaberriko talde bat duela txapelketa honetan eta esperientzia polita da gazteentzat.

## Finala

"Atletismoarekin gozaten" ekintzako finalean Estatu osoko zortzi ikastetxetako taldeak sailkatu dira. Landaberri laugarren postua hoberena du

## IGERIKETA.-

## Buruntzaldea IKT ederki Huesca Hiria sarian

Bi urre, zilar bat, 3 brontze eta hainbat marka pertsonal lortu zituzten

**Buruntzaldea IKT-ko gazteek ez dute atsedenik izan Pazko astean, Panticosan izan dira gogor entrenatzen eta irteerari amaiera emateko, apirilaren 14ean, Huesca Hiria txapelketan lehiatu ziren. Honetan lan ederra egin zuten igerilariak eta dominak eta marka berriak eskuratu zituzten.**

**B**uruntzaldea IKT-ko igerilariak apirilaren 10etik 14ra Panticosan izan dira lanean. Irteerari amaiera emateko igerilariak Huescan izan ziren, "XX Huesca Hiria" sarian parte hartzen. Bi urre, zilar bat, 3 brontze eta marka pertsonalak lortu zituzten igerilari gazteek.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "asteazken goizetik larunbat goizera 7 entrenamendu egin ostean irteerari amaiera emateko jarduera gisa aukeratu genuen sari hau".

Panticosan egindako entrenamendu "handiaren" ondorioz gorputzean neke handia bazuten ere, marka txukunak egin zituzten igerilariak eta batzuek haien markak hobetzea lortu zuten, 50 metroko frogetan batez ere.

Sari honetan, igerilari bakoitzak estilo batean bi proba egin behar zituen, bata

100 metrotan eta bestea 50 metrotan, eta bi denboren baturak erabakitzen zuen sailkapena.

## Dominak eta markak

Era honetara, Itsaso Tolosak eta Iñigo Ibarburuk urrea lortu zuten, lehenak bizkar estiloan eta bigarrenak tximeleta estiloan.

Iñigok, gainera, 50 m. tximeleta proban bere marka pertsonala hobetu zuen, 27"32 eginez.

Mikel Esnalek estilo librean lortu zuen zilarrezko domina eta bere marka hobetzeko gutxi falta izan zitzaion.

Haitz Mitxelenak, Iñigok bezala, 50 m. tximeleta proban marka pertsonala jaitsi zuen (27"51) eta egindako bi frogen emaitzek brontzea eman zioten estilo honetan.

Domina lortu zuen bosgarren gaztea Naroa Goikoetxea izan zen, honek ere brontzea



Buruntzaldea IKT igerilariak Huesca Hiria sarian lortutako dominekin. BURUNTZALDEA IKT

eskuratu zuen, baina bular estiloan.

Dominez gain, Jone Vazquezek 50 m. libreko bere marka pertsonala 34"15-ra jaitsi zuen, Naiara Lizasok 100 m. librekoa (1'08"81) eta Mikel Sotok igeri egindako bi probetan lortu zituen marka pertsonalak haustea, 100 m. bular proban 1'25"16 egin zuen eta 50 m. bular proban, berriz, 40"10.

Honetaz gain, 4x100 m. libre erreleboko proban ere parte hartu zuen Buruntzaldea IKT-k.

Gizonezkoen erreleboak, Haitz Mitxelena, Asier Lopez de Arregi, Iñigo Ibarburu eta Mikel Esnalek osatutakoak brontzezko domina lortu zuten eta horretaz gain taldeko errekor berria ezarri zuen 3'48"55 eginez.

Nesken erreleboak, aldiz, 11garren sailkatu zen.

Panticosan egindako irteerari amaiera ezin hobea eman zioten beraz Buruntzaldea IKT-ko igerilariak.

Asteburu honetan Anoetan izan dira, Manolo Garcia Sarian parte hartzen.

## LABURRAK.-

**Endika Gartzia duatloieko Euskadiko txapelkun** Euskadiko duatloi motzeko txapelketa izan zen martxoaren 31ean, Durangon eta honetan, deskalifikazioak medio, Endika Gartzia lasarteoriatarra izan zen irabazlea.

350 bat parte hartzaile izan ziren irteeran. Lehenik 10 kilometro egin behar zituzten korrika, jarraian 40 kilometro txirrin-dan eta azkenik, beste 5 kilometro lasterka.

Proba polita izan zen, helmugara iritsi arte. Izan ere, kontrako zentzuan sartzeagatik korrikalari batzuk kanporatu baitzituzten epaileek. Helmugara lehenengo eta bigarren postuan iritsi arren, Iurgi Etxeandia eta Kepa Ruiz kanporatuak izan ziren huts honengatik.

Saltoki taldean dagoen Endika Gartzia herritarrak proban 1:56:16 denbora eginez, hirugarren postuan amaitu zuten. Baina epaileen erabakiagatik, probako garaipena eta Euskadiko garaikurra lortu zituen.

## Esteban Martinez judoka 5. Estatuko txapelketan

Espainiako Junior txapelketa izan zen apirilaren 14ean, Madril. Bertan LOKEko Esteban Martinezek parte hartu zuen eta bosgarren postua eskuratu zuen.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, "oso txapelketa ona egin zuen".

Estebanek sailkapeneko lehenengo borroka irabazi zituen, Madrileko eta Murziako kirolarien aurka. Finalerdietan galdu zuen Gaztela eta Leongo Daniel Perezen aurka. Brontzezko domina lortzeko bidean lan ona egin arren, Cesar Gimeno euskaldunaren aurkako borroka galdu zuen. Honela 5. postuarekin konformatu behar izan zuen.

"Emaitza ona da baina pena bat izan da brontze hori ez lortzea," adierazi du LOKEko entrenatzaileak.



Landaberriko neska "Atletismoarekin gozaten" ekimenaren finalean izango dira, Valentzian.

eta LOKEko entrenatzaileak aipatu digunez, "ongi eginez gero, brontzezko domina lortu dezakete".

Gazteek egin behar izango dituzten probak 60 metroko lasterketa, 60 metroko hesi-lasterketa, 2 km. martxa proba, altuera jauzia, 1000 metroko iraupen proba eta

4x100 metroko erreleboak dira.

Entrenatzaileak aipatu digutenez, Landaberriko kide bakoitzak bi proba gehi erreleboak egin beharko ditu. Gainera, proba bakoitzean gutxienez taldeko bi kidek parte hartu beharko dute puntuak lortzeko.

— Agenda —

Osteguna 26, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Drama Iraniarra

Okendo zinema taldearen eskutik, "Nader y Simin, una separación" film iraniarra eskainiko da. Simin eta Nader-ek, bizitza hobere baten bila, Iran uztea erabakitzen dute. Baina, gizonak bere aitak Alzheimer duela dakienean, hura zaintzeko geratzea erabakitzen du. Emakumeak dibortzioa eskatzen du. Nader-ek bere aitaren zaintzan lagunduko dion emakume bat kontratatzen du. Sari ugari eskuratu ditu film honek, horien artean, Atzerriko hizkuntza sailko Oscar Saria eta Berlingo Zinemaldiko Urrezko hartza. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteazkena 25, 19:00etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolako X. urteurrena dela eta, Kukai dantza taldeak entsegu irekia egingo du.

Andoain  
Erakusketa

**BASTERO KULTUR GUNEA**  
**Maiatzaren 5a arte**

Targakia elkartearen "Baserritik Zerkau-sira" argazki erakusketa ikusgai dago.

Hernani  
Erakusketa

**BITERI KULTUR ETXEA**

**Apirilaren 27a arte, 17:00etatik 20:00etara**

San Joan Konpartsak Euskal Jantzien erakusketa antolatuta du.

Usurbil  
Erakusketa

**SUTEGIKO AUDITORIOA**  
**Asteartea 24, 19:00etan**

Nafartarrak taldearen hitzaldi zikloan, "Independentziaren bideragarritasun ekonomikoa"-ri buruz mintzoko dira.

**SUTEGIKO AUDITORIOA**  
**Osteguna 26, 19:00etan**

Nafartarrak taldearen hitzaldi zikloan, "Euskera, Hizkuntza bat bere bakardadean" gaia jorratuko da.

Lasarte-Oria  
Zinema

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 29, 17:00etan**

Haurrentzako zinea atalean, "Una aventura extraordinaria" filma eskainiko da. Gaztelaniaz. Sarrera 3,40 euro.



**Igandea 29, 16:30ean**

Okendo zinema taldearen eskutik, Oscar saria lortu zuen "Nader y Simin,

una separación" film iraniarra eskainiko da. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 27, 22:00etan**

Danok Kide elkartearen 50. urteurrena dela eta, Donostiako Teatro Estudiok "El chico de la última fila" antzerkia eskainiko du. Gastelaniaz. Doan.

Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Apirilean zehar**

Inhar Mutiozabalek "Ez da Maharajarik

geratzen" argazkien erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariari galdetu.



Bestelakoa

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astelehena 23, 16:30ean**

Liburuaren eguna dela eta, EPAko ikasleek irakurketak egingo dituzte.

— Herritarren txokoa —

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, apirilaren 27an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar gutxiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan apirilaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odol falta dago eta!

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza eta Lourdes-era txangoa

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da apirilaren 23an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Honetaz gain, Maria Auxiliadora elkarteak Lourdes-era txangoa antolatu du maiatzaren 13rako. Prezioa 27 euro dira. Izena emateko, 943 363 675, 943 360042 edo 943 364 296 zenbakietara deitu behar da gaueko 21:00etatik 22:00etara.

Gernika-Lumo eta Bilbora irteera

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak irteera antolatu du apirilaren 30ean, Gernika-Lumo eta Bilbora.

Honetan, bakoitzaren gustuaren arabera, Gernikako batzar-etxea Santa Maria eliza, Bakearen museoa edo azoka bisitatu ahalko dira. Bazkaria "Lur Gatika" jatetxean izango da. Arratsaldean, Bilbon izango dira.

Elkarteko bazkideentzako 34 euro da eta bazkideak ez direnek, 38 euro ordaindu behar dituzte. Izena ematea asteazkenean ireki zen.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, bizikleta bat, urrezko pultsera, eraztun bat, neskaren eskumuturreko bat, betaurreko graduatuak eta urrezko belarritako bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko Udaltzainen Bulegora hurbildi behar dira interesatuak, 09:00etatik 13:00etara.

— Haurren txokoa —

Aurkitu herrian dauden 10 zuhaitzen izena

P	A	B	A	I	L	E	M	A	K	C	D
E	I	F	G	H	I	J	L	K	L	M	N
L	O	K	P	R	S	T	I	U	H	G	X
Y	Z	A	O	B	C	D	Z	E	F	M	G
I	J	S	K	N	L	M	A	N	O	I	Z
P	R	S	T	U	D	H	R	I	X	M	Z
Y	Z	A	B	J	K	O	R	L	M	O	I
Z	U	R	Z	U	R	I	A	N	O	S	I
P	R	G	R	S	T	U	H	O	P	A	R
R	K	S	T	U	X	Y	X	A	R	M	A
Z	I	A	A	O	G	K	N	I	G	B	H
C	A	K	A	T	S	U	R	A	B	D	Y

Erantzuna: pikondoa, lizarra, zurzuria, katsura, urkia, mimosa, haritza, kame-lia, karma, ginkgoa.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Veronica González Kiroldegiko monitorea eta "El Conquis" lehiaketako parte-hartzailea

# "Sugandilak ere jan ditugu"

■ 22 egun egon da Patagonian muturreko baldintzetan ■ Hurrengo asteetan ikusiko da lehiaketaren amaiera ETB2an ■ Kanporatutako lehiakideekin batera izango da saioetan

**Hilabete Patagonian egon ondoren Lasarte-Orian da berriro Veronica González. 23 urteko lasarteoriarrak oraindik ez du "El conquistador del Fin del Mundo" saioko ibilbidea amaitu, hurrengo bospasei asteetako emanaldietan kanporatutako beste lehiakideekin batera izango da eta telebistan. Oroitzapen, lagun on eta Patagoniako baldintza gogorrei aurre egiteko kalitatezko arropa ekarri ditu besteak beste motxilan.**

Jon ALTUNA IZA

Veronica González kiroldegiko monitorea ETB-2ko "Munduaren Amaierako Konkistatzailea" lehiaketatik bide erdia eginda itzuli da. Lehenengo kanporaketak gainditu ditu, ausardiaz jokatu duela dio eta azkenengoan, aurkaria bezain ondo ibili arren, suerte txarraren ondorioz galdu zuela.

**Zer moduzko esperientzia izan da oro har?**

Oso ona. Sinestezina. Han elkarbizitza eta probak, biak, nahasten dira, zure burua estutu egiten duzu, muturre-raino eramaten duzu.

**Zer dakarzu handik?**

Nire burua gehiago baloratzen dut. Bakarrik zoaz, ez dakizu noiz arte egongo zaren ezta zeintzuk diren zure mugak. Han indartu egiten zara, probei gogor egiten diezu aurre eta itzultzean zorarena da, "subidoia".

**Lagunak ere ekarri dituzu?**

Bai, lagun handiak.

**Lehiaketako zein momentu nabarmenduko zenuke?**

Momentu bat izan zen zoragarria. Bost egun generamatzan ezer beroa jan gabe, eta "tumbapalos" proba irabazi genuen, 15 segundoko proba bat. Ezer ere ez genuen eta janaria, sua,... lortu genituen.

**Goserik pasa al zenuten?**

Bai, ez genuen ezer, muturreko egoera zen, gosea, hotza,... Animo eta aldarre aldetik ere ahul ibili ginen sarritan.

**Zer jaten zenuten?**

Latak sardina, berdela, arto ahi edo polenta,... Sugandilak ere jan ditugu eta zuhaitzeta-ko onddo batzuek ere bai. Medikuari galdetzen genion ea jan zitezkeen, eta jateko esan zigun, "ea zer gertatzen den!". Onddo horiek ere jan genituen beraz.

**Medikuen aldetik ondo zainduta zeundeten, ezta?**

Buruko mina bazenuen ez zizuten aspirinarik emango, baina bestela bai, ondo portatzen ziren.

**Probek ahalegin handia eskatuko dute, ezta?**

Bai, immunitate probatan ez irabazteak ondorioak zituen eta beraz ehunetik ehunera joan beharra zegoen. Eta duela gutxi gero gehiago, asko sufritzen da.

**Dueluetan urduritasuna ere izango da...**

Bai, probatara joan eta ez zegoen aurretik azalpenik, bertan auzaltzen dute proba nola izango den eta kitto, ulertzen baduzu, ondo eta bestela, albokoari begiratu.

Beti zeneukan ondo uler-tuko ote zenuen kezka hori.

**Ausarta izan zara, ezta?**

Bai, azkenera arte borrokatu dut. Duelurako fisikoki ni bezalakoa zen neska hautatu eta kanporatzen saiatu nintzen.

Amaitzean nik irabazi nuela uste nuen. Armiarma sare deitutako proban zintzilik zeuden zaku batzuek hartu behar ziren, batek hartzean besteara uretara erortzen zen, bost poltsa hartu nituen nik, eta berak bi, baina ez zen kopurua edo tamaina kontuan hartzen, pisua baizik eta bereak astunagoak ziren. Borrokatua izan zen duelua.

Hamargarren kaleratua izan naiz, bederatzi geratzen dira.

**Estrategiaren batek kale egin al zizun?**

Ez, ezer prestatu gabe joan nintzen hara, nik ez dut joko-etan estrategiarik, trikimailu edo azpizjokorik erabili, beti izan naiz legala. Agian horregatik nago hemen.

**Aurretik pentsatzen-imaginatzen al zenuen erronka hain gogorra izango zenik?**

Ez. Janariari dagokionez, oso zorrotzak ziren, ez baduzu irabazten ez dago janaririk.



**Ezer prestatu gabe joan nintzen hara, ez dut jokoetan estrategiarik erabili, beti izan naiz legala eta agian horregatik nago hemen**

Hotza ere pasa genuen: erdiko kanpamentuan, kobazu-loan, ura sartzen zen, zakuak bustita geneuzkan eta beste toki batera eramateko eskatu genuen, baina ezetz erantzun zuten: "reality-show batera etorri zarete, sentitzen dugu".

**Kameren aurrean hainbeste denbora izatea gogorra al da?**

Lehenengo egunetan bai, begiratzen genien kamerei, erreportaria atzetik geneukan galdezka, baina gero jada ohitu ginen, kamera filmatzen ari bada ere zure bizitza egin behar duzu.

**Grabatua izango dela aurrez jakiteak eragiten al du zuen jokabidean?**

Ez. Lehenengo egunetan ez duzu kamera aurrean asko hitz egiten, kamerak joatean gehiago. Gero eztabaidak izaten ziren kamera aurrean egon edo ez.

**Nork irabaziko du, nor da irabazteko zure favoritoa?**

Lobok irabaztea nahi dut. Nire taldekoa izan da. Berak irabaziko du, "Konkistadorea" ez du

ederrenak edo indartsuenak irabazten, pertsona autentikoenak irabazten du. Lobo horrelako hautagaia da.

**Zer moduzkoa izan da Kondor-en taldea?**

Ona. Fisikoki oso indartsuak ginen, mentalki ez hainbeste. Juan Mari Lujanbio kapitainarekin oso ondo konpondu ginen gainera. Arraunlaria, berria zen programan eta agian hasiberriaren akatsak izan ditu, adibidez beste taldearentzat Kortak janaria lortzen zuen gauetan mendian, eta berak ez, baina bestela oso ondo.

**Ez al zenuen Korta nahiago kapitain bezala?**

Ez, ez, ez.

**Zer moduz Julian lantzi aurkezlearekin?**

Oso ondo. Kamera aurrean bere papera dauka, baina kamera jaisterakoan txantxa zalea da, oso "katxondoa".

**Benetako kondorrik ikusi al duzue Patagonian?**

Bai. Asko. Esan ziguten abera-

tsen kanpamenduan bazeudela eta kontuz ibiltzeko, txantxa bat zela uste genuen, baina, ez, egia zen. Asko daude, arrano handiak dira. Zarata handia ateratzen dute.

**Zenbat aste egon zinen han?**

Ni, 22 egun egon naiz programan, hiru egun egon ginen sartu aurretik etxola batzuetan, eta atera ondoren beste bi egun hotel batean. Guztira 27.

**Zer moduzko parajeak dira Patagonian?**

Sinestezina. Deserto batetik segituan elurretara pasatzen zara. Kanpamendu aberatsa izugarria zen, berde berdea, eta handik autoz ordu eta erdira zeuden pobrea eta oso pobrea.

**Nolakoa izan zen casting-a? Nolatan animatu zinen?**

Kiroldegira etortzen da Nakor, azken irabazlea, eta berak esan zidan, "gaur eta bihar da proba, zuri ondo joango zaizu". Bi astera deitu zidaten, pentsatze-ko denbora eskatu nien, Kiroldegian arduradunarekin hitz egin behar nuen, eta joateko esan zidan. Amak ere bai gero.

**Ingurukoek asko animatu al zaituzte?**

Koadrilako lagunei ez nien ezer esan urriaren 14an joan aurreko azken asteburura arte. Uztaila bukaerarako banekien urrian joango nintzela, baina diskrezioa eskatzen dute.